

Jainkoak ez zuen
 existitzen,
 nahikoa baitzuen bere
 presentzia sumatzearekin.
Jainkoa metafisika hutsa
 zen
 eta gainerako guztia
 –hondakinak–
 gu ginen.
Jainkoak, bere begirik
 gabeko aurpegitik,
 behatu egiten zigun
 deusik ikusi gabe.
Eta gu,
 haren ezaxolarekin
 konformatu egiten ginen,
 asebeterik.
Azken finean, Unibertsoa
 horixe baita: ezaxola dibino bat,
 non flotaka ari garen
 noraezean,
izarrak galaxiak eta planetak
 lekuko isil,
 zeinak,
 existitzen ez duen
 deusik ez dakusan
Jainko baten
 adierazpide diren,
apatia kosmologikoaren
 erdian,
 gu
 –koitaduok–
bidaia behartu honetako
 protagonistak.
Egia esan, ez genekien
 zehatz-mehatz
 zer ginen
 zertarako ginen,
lasai-arraio izan gintezkeen-eta
Jainkoaren esentzia solidoa
zeharkatzen zuen meteorito bat
(harri-puska hotz, bakarti bat)
 xede oroz gabetua
itzulerarik ez zuen bidaia batean
 preso,
 “bidaitasun kronikoaz” eri,
 gu,
 izaki azalezin, misteriotsu,
 ikusezin, ahaztuok,
espazioaren erdian lagatako
 hitz batean bezala.
Zeren, horixe ginen:
 deusik ez,
 begirik gabeko aurpegi bat,
 existentziarik gabeko presentzia

huts baten

terminala,

Jainko sadiko baten mendean,

Jainkoaren beraren

ISLA.